

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2022 Foru Dekretua, irailaren 27koa. Onespena ematea jasangarritasun energetikoko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroa arautzen duten oinarriei eta 2022ko ekitaldiko deialdiari

Arabako Lurralde Historikoko Klima Ekintzarako Estrategiak (KLIMA ARABA 2050), Arabako Batzar Nagusietako Ingurumen Batzordeak joan den uztailan onartutakoak, gure lurraldean klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak eta ekintzak abian jartzea bultzatu nahi du, eta karbono gutxiko energia eredu baterantz aurrera egiten lagundu.

Onetsitako dokumentuak, 1. helburuan (Arabako eredu ekonomiko eta energetikoa deskarbonizatzea), "Energia berriztagarriak eta erregai berriak sortzeko eta kontsumitzeko trantsizio-rako" lan lerro estrategikoaren barruan, lurraldeko toki erakundeei zuzendutako jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzea aurreikusten du.

Arabako Foru Aldundiak, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren bitartez, laguntza lerro baten deialdia egin ohi du urtero udalerriek eta kontzejuek instalazio, eraikin eta ekipamendu publikoetako energiaren kudeaketa eraginkorra eta energia iturri berriztagarrien aprobetxamendua susta ditzaten (eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia eta minihi-draulikoa) eta, 2018az geroztik, mugikortasun elektrikoaren alde egin dezaten ibilgailu elektrikoak erosten eta jendeak erabiltzeko errekararako guneak instalatzen lagunduta.

Aurreko deialdietan laguntza lerro hori kudeatzen lortutako esperientzia, deialdi bakoitzean jasotako eskaeren kopuru handia (bereziki, 2021. urtekoa) eta ekintza ildo hori helburu eta egoera berrietara egokitzeko beharra kontuan hartuta, komeni da zenbait aldaketa egitea laguntza horien oinarri arautzaileetan. Hauek dira aldaketa nabarmenenak:

– Dirulaguntzak jaso ahalko dituztenak zabaltzea 25.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako Lurralde Historikoko udalerrri eta kontzejuetara.

– 1. jarduketa motan klima aldaketa arintzeko eta klima aldaketara egokitzeko beste plan batzuk sartzea.

– 4. jarduketa mota sartzea energia eraginkortasuna areagotzen duten lanparak jartzeko, argiteria publikoan eta eraikin publikoetan.

– 5. jarduketa motan hauek sartzea: aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen baliabide berriztagarrien beste zenbait aprobetxamendu, bai sorkuntza instalazioak bai haiekin lotutako biltegitarte instalazioak.

– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta baldintza gehigarriak honela aldatzea:

- Balio erantsiaren gainera zerga (BEZ) ez da diruz laguntzekoa.

- Kostu hautagarriak argituko dira eta barne sartuko dira proiektuaren edo memoria teknikoaren kostua, obra zuzendaritza, obra zibila, ekipoen hornidura eta instalazioa, eta instalazioak legezatzeko kostuak.

- Instalazioari 5 urtez eutsiko zaiola bermatuko da.

– Balioespen irizpideak eguneratzea, jarduketa mota guztietarako gutxieneko puntuazioa bateratzea, berdinketarik izanez gero esleipen lehentasuna sartzea eta uko egiteengatik geratzen diren kredituen destinoa argitzea.

– Hitzek hitzekoa argitzea eskaerak aurkezteko baldintzak, zuzentzeko epea, jarduketak justifikatzeko epea luzatzea eta beste dirulaguntza batzuk jakinarazi beharra direla eta.

Eranskinen, jasangarritasun energetikoko ekintzak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile berriak jasotzen dira, proposatzen diren aldaketa guztiak sartu eta gero.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Ondorioz, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea "Jasangarritasun energetikoko ekintzetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak," foru dekretu honen eranskin gisa atxikitzen direnak.

Bigarrena. Onestea jasangarritasun energetikoko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren 2022rako deialdia. Deialdi horren zuzkidura orokorra 242.285,25 euro izango da 2022rako, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako aurrekontuko 60205-G-456600-76290604 "Efizientzia energetikorako dirulaguntzak" aurrekontu partidaren kontura.

Hirugarrena. Zenbateko osagarriak ezarri ahalko dira kasu hauetan, horretarako beste deialdi bat egin behar izan gabe, gehienez ere, 242.285,25 euro.

– Energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzera bideratuta dagoen laguntza lerroko 2021-2022ko deialdiari dagokion 2022ko urtekoa likidatzetik geratzen diren soberakinak aplikatzea.

– Aurrekontu aldatzeen ondorioz lortutako beste soberakin batzuk aplikatzea.

Deialdia argitaratzen den bezala argitaratu beharko da gehieneko zenbatekoak baino gehiago ematea xedatzen duen ebazpena, baina argitalpen horrek ez du esan nahi epea luzatzen denik eskaera berriak aurkezteko edo berriz ere hasten denik zenbatzen ebazteko epea.

Laugarrena. Laguntza lerroen bidez ekintza mota hauek diruz lagunduko dira, diruz lagun daitekeen gehieneko ehuneko eta dirulaguntzaren gehieneko zenbateko hauen arabera:

JARDUN MOTA	AURREKONTU OSOAREN BANAKETA, JARDUKETA MOTAREN ARABERA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENKO ZENBATEKOA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENKO EHUNEKOA
1. mota. Eraikin eta ekipamendu publikoen inbentario energetikoak egitea, ibilgailuak eta argiteria publikoko instalazioak, kontsumoak kontrolatzea, ikuskaritza energetikoa, energia eraginkortasuneko ziurtagiriak, energia ekintzen planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko beste plan batzuk	57.285,25 euro	6.000 euro	ehuneko 85
2. mota. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, erakunde publikoek kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeko	5.000 euro	3.000 euro	ehuneko 85
3. mota. Eguzki bidezko argi sistema publikoko ekipamendua	20.000 euro	20.000 euro	ehuneko 60
4. mota. Lanparak ordeztzea, argi sistema publikoan eta toki erakundeen eraikinetan energia eraginkortasuna areagotzeko	10.000 euro	5.000 euro	ehuneko 60
5. mota. Baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak bai haiekin lotutako biltegitarte instalazioak, haiek guztiak energia eskari publikoari erantzuteko	100.000 euro	40.000 euro	ehuneko 60
6. mota. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektrikoak azpiegiturak ere, erabilera publikorako	20.000 euro	6.000 euro	ehuneko 60
7. mota. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bai eta bizikletentzakoak ere. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura	20.000 euro	5.000 euro	ehuneko 60
8. mota. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bai eta bizikleta elektrikoak ere, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako	10.000 euro	9.000 euro (1.500 euro bizikleta elektrikoetarako)	ehuneko 30

Bostgarrena. Diruz laguntzeko den jarduera hasi gabe egon behar da 2022ko urtarrilaren 1ean, eta beranduenez 2022ko abenduaren 30ean amaitu behar da. Ordainketa egiteko eskatzen den dokumentazioa aurkezteko epea 2022ko abenduaren 30ean amaituko da.

Seigarrena. Dirulaguntza eskaerak egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>) dagoen berriazko izapidearen bidez aurkeztu behar dira, erregistro elektronikotik. Horretarako epea hilabeteak izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo ezagutu egoitza – nola sartu izeneko atalera. Arabako Foru Aldundiaren webgune instituzionalean <https://web.araba.eus/es/-/solicitar-ayudas-sostenibilidad-energetica>; eskuragarri dagoen informazioan, eskaera ongi aurkezteko jarraitu beharreko argibideak zehazten dira.

Zazpigarrena. Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua izango da, eta ebazteko eskumena Foru Gobernu Kontseiluak izango du.

Zortzigarrena. Eskaerei buruzko ebazpena gehienez ere bi hileko epean hartuko da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera, eta postaz jakinaraziko zaie interesdunei ondoko hamar egun baliodunetan. Esanbidezko ebazpenik ez emateak dirulaguntza ez dela eman esan nahiko du. Ebazpen horrek eta oinarri arautzaileak aplikatzeko ematen diren gainerako guztiek administrazio bidea agortuko dute.

Bederatzigarrena. Ahalmena ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari espediente honek eskatzen dituen eta Foru Gobernu Kontseiluari dagozkion administrazio egintzak eman ditzan, legez ezarritako salbuespenetan izan ezik, eta Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauan gastua baimendu eta antolatzeke ezartzen diren eskumenari eta mugari kalterik egin gabe.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetzea jasangarritasun energetikoko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroa arautzen duten oinarriak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Foru dekretu honek onetsitako oinarri arautzaileak eta deialdia ALHAOn argitaratuko dira eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

ERANSKINA

Energia jasangarritasuneko ekintzetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak

1. XEDEA.

Oinarri hauen helburua da energia jasangarritasunean lagunduko duten ekintzetarako dirulaguntzak ematea arautuko dituzten baldintzak erregulatzea, Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legean adierazitako eskumenen esparruan.

2. ERAKUNDE ONURADUNAK.

Dirulaguntzak jaso ahalko dituzte 25.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako Lurralde Historikoko udalerrri eta kontzejuek.

3. DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO JARDUN MOTAK.

Diruz laguntzeko moduko jardun guztiak honako tipologia hauetan adierazitakoak izango dira, eta, betiere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (ETEL) erakunde eskatzaile bakoitzarentzat adierazitako eskumenei hertsiki lotuta:

- 1. mota. Eraikin eta ekipamendu publikoen inbentario energetikoak egitea, ibilgailuak eta argiteria publikoko instalazioak, kontsumoak kontrolatzea, ikuskaritza energetikoa, energia eraginkortasuneko ziurtagiriak, energia ekintzen planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko beste plan batzuk. Hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoei dagokienez.

- 2. mota. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, toki erakunde onuradunek kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeko.

- 3. mota. Eguzki bidezko argi sistema publikoko ekipamendua.

- 4. mota. Lanparak ordezteak, argi sistema publikoan eta toki erakundearen eraikinetan energia eraginkortasuna areagotzeko.

- 5. mota. Baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak bai haiekin lotutako biltegitarte instalazioak, haiek guztiak hauen energia eskariari erantzuteko: toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoak.

- 6. mota. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektriko azpiegiturak ere, hori guztiori toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoak erabiltzeko.

- 7. mota. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bai eta bizikletentzakoak ere. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura.

- 8. mota. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bai eta bizikleta elektrikoak ere, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

4. DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO GASTUAK ETA BALDINTZA GEHIGARRIAK.

1. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaera daukatenak eta behar-beharrezkoak direnak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskurapen balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa. (Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 29. artikuluko 1. apartatua).

2. BEZa ez da inola ere diruz lagunduko.

3. Energia berriztagarrien aprobetxamendurako aurreikusitako instalazioak eta ekipamenduak (5. jardun mota) eta haiei lotutako proiektuak (6. jardun mota) soilik diruz lagundu ahal izango dira, kontsumo eta erabilera publikorako badira. Horretarako, toki erakunde eskatzai-learen kontsumoak bakarrik hartuko dira kontuan.

4. Energia berriztagarrien aprobetxamenduko instalazio eta ekipamenduetarako, kostu hautagarritzat joko dira proiektuaren edo memoria teknikoaren kostua, obra zuzendaritza, obra zibila, ekipoen hornidura eta instalazioa, eta instalazioak legeztatzeako kostuak.

5. Tokio erakunde bakoitzak bi eskaera egin ahal izango ditu gehienez, eta jardun mota bereizietan inskribatu beharko dira (eskaera bat jardun mota bakoitzeko).

6. Diruz lagundu beharreko jardunak hasi gabe egon beharko dira deialdi bakoitzak ezartzen duen urtearen urtarrilaren 1ean.

7. Dirulaguntzaren xedea instalazioak edo ekipamendua badira, toki erakunde onuradunak haien mantentze lana gutxienez bost urteko eperako bermatu beharko du, eta, gainera, mantentze kontratu bat sinatu beharko du arloan espezialista den enpresa batekin. Kontratu hori dirulaguntzaren xede den instalazioa edo ekipamendua amaitu den urteko abenduaren 31 baino lehen sinatu beharko da, eta, gainera, kontratu horren kopia bat bidali beharko zaio urtero Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailari.

8. Arabako Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29. artikulua aplikatuz, ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen baldin badira, dirulaguntzari dagokion xede zehatzari bideratu beharko dizkio ondasunak onuradunak, bost urteko epean gutxienez.

9. Diruz laguntzeko moduko jardunak kontratatzeako, sektore publikoko kontratuen arloan indarrean den legediak xedatutakoa bete beharko da. Kontratu txikietan (40.000 euroko balio zenbatetsitik beherakoak, obra kontratuak badira; eta 15.000 eurotik beherakoak, hornidura kontratuak edo zerbitzu kontratuak badira), toki erakunde onuradunak gutxienez bi (2) eskaintza eskatu beharko dizkie lanak egiteko gai diren enpresei, salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada. Eskaintzak froga-agiriekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskabidean aurkeztu beharko dira. Haien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

10. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio (Arabako Foru Aldundia bera barne) edo erakunde publiko zein erakunde pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

11. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza eta diru sarrera batzuekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

12. Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko administrazio kontratuak egiten direnean, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. eta 21ter artikulua aplikatuko dira. Lege hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen. Ondorioz, kontratua gauzatzeko baldintzen artean jasoko da esleipendunak, prestazioa egiterakoan, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharko dituela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrekin bat etorri. Hori guztia kontratuen legeriari lotuta egingo da, eta betiere organo eskudunak ezarri badu neurri hori aplikatu behar zaion kontratazio mota edo ezaugarria dela.

5. BALIABIDE EKONOMIKOAK.

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko ditu jardun mota bakoitzeko gehieneko zenbatekoak eta oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak, bai eta haiek aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion ere.

6. AURKEZTU BEHARREKO ESKAEREN EPEA ETA DOKUMENTAZIOA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA.

Dirulaguntza eskaerak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko, kasuan kasuko deialdiak ezartzen duen epean.

Eskaerarekin batera I. eranskinean ezarritako agiriak aurkeztu behar dira.

Aurkeztutako eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak eta prozedurak, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak interesa dutenei eskatuko die 10 egun balioduneko epean akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak aurkez ditzatela. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da eta beren eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

7. EMAKIDAREN PROZEDURA. DIRULAGUNTZEN BALIOESPEN IRIZPIDEAK ETA ADJUDI-KAZIOA. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Dirulaguntzak nori eman norgehiagoka bidez ebatziko da.

Hona hemen eskaeren balioespen irizpide orokorrak:

A) Proposatutako ekintzaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa. Proposatutako denbora programazioaren edukia, xehetasun maila, jardunaren justifikazioa (aurreko eta ondorengo konparazioa) eta koherentzia balioetsiko dira, gehienez 40 punturekin.

B) Inbertsioaren eraginkortasuna, honela neurtuta: energiaren aurrezpena kostuaren erlazioan; 20 puntu gehienez.

C) Udal energia planean, tokiko 2030 agendan, energia jasangarriaren ekintza planean, klimaren eta energiaren aldeko ekintza planean edo klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko toki erakundeak onetsitako beste plan batzuetan sartutako plana edo ekintza izatea: 25 puntu, gehienez.

D) Erakunde onuradunak 1.000 biztanle baino gutxiago baditu: 15 puntu gehienez.

Ezetsi egingo dira gutxienez 40 puntuko balioespena lortzen ez duten jardunak.

Aurkezten diren proiektuak balioetsi ondoren, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran sailkatuko dira; dirulaguntzak hurrenkera horretan emango dira, harik eta deialdian jarduketa mota bakoitzari esleitutako aurrekontu zuzkidura amaitu arte.

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, proposamenak honako lehentasun irizpide hauen arabera lehenetsiko dira, zeinak hurrenez hurren aplikatuko baitira:

1. Aurreko deialdietan erantzun ez ziren jarduerak, aurrekontu-zuzkidura agortu zelako, bertiere deialdi berrian dirulaguntza berriz eskatu badute.

2. inbertsio handieneko espedienteak.

3. biztanle gutxiko toki erakundeak.

Hasiera batean jarduketa mota jakin bati esleitutako aurrekontua agortzen ez bada, aurrekontua agortuta duten beste jarduketa mota batzuen proiektuak diruz laguntzeko erabili ahal izango da, irizpide gisa puntuazio hurrenkera baliatuta, edozein dela proiektuaren jarduketa mota.

Onuradunak ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik 10 egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badio, ebazpenean ezarritakoa onartu duela pentsatuko da.

Zuzkidura agortzeagatik erantzun ez zaien eskaerak "poltsan" geratuko dira, puntuazio hurrenkeran. Zerrenda hori erabiliko da, hala badagokio, baldin eta hasieran esleitutako funtsak aplikatu ezin badira, edo haien froga-agiriak osorik ez aurkezteagatik; horrela, diru esleipen nahikorik ez izateagatik osorik edo zati batean diruz lagundu ezin izan diren proiektuak finantzatu ahal izango dira baliabide horiekin.

Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko, jardueraren kostua hartuko da abiapuntutzat, eta diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoa aplikatuko zaio. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua da jardueraren kostua, BEZa aparte.

Dirulaguntzaren zenbateko bakoitza dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa baino gehiago bada, gehieneko zenbateko hori emango da.

Kasuan kasuko deialdiak finkatuko du zeintzuk diren jardun mota bakoitzerako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa eta diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoa.

8. ESKAERAK BIDERATZEKO ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA. ESKAEREN EPEAK ETA EPE BARRUAN EZ EBAZTEAREN ONDORIOAK.

1. Dirulaguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira; lehiaketa agintzeko eta bideratzeko eskumena Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak dauka.

2. Eskaerak balioespen mahai batek aztertuko ditu. Hauek izango dira mahaiko kideak: Ingurumen eta Hirigintza Saileko zuzendaria, lehendakari gisa; Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren burua, kide gisa, eta Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, idazkari lanetan.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikulua arabera, balioespen mahaiaren osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua errespetatuko da, eta horretarako, beharrezkoa bada, klausula honetan jasotako ordezkartzen edo ordezkapenen izendapenak egingo dira.

3. Arabako Foru Aldundiak, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren bitartez, egoki iriztitako kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

4. Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balioespen mahaiak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuta.

5. Balioespen mahaiak balioespenaren emaitzak bidaliko dizkio instrukzio organoari, ebazpen proposamena egin dezan.

6. Organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emango du, eta behar diren betekizunak edo baldintzak ezarriko ditu.

7. Eskatzaileei ez zaie eskainiko entzunaldiko izapiderik, haiek aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko ebazpenean.

8. Ebazpenean ageri beharko dira zeintzuk diren dirulaguntza jaso duten erakunde eskatzaileak, zein den dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, zein motatakoa den diruz lagundutako jarduna eta gainerako eskaeren esanbidezko ezezkoa.

9. Dirulaguntza eman edo ukatu zaien jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako moduetakoren batean.

10. Kasuan kasuko deialdian ezarriko dira ebazpenerako eta jakinarazpenerako epeak. Epealdiaren barruan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitatzeko behar dira.

11. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, jakinarazten denetik bi hileko epean, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikuluan jasotakoarekin.

9. ORDAINKETA. ERAKUNDE ONURADUNAK DIRULAGUNTZA JASOTZERA KOAN LORTU NAHI ZUEN HELBURUA LORTU IZANA JUSTIFIKATZEKO MODUA ETA EPEA.

Dirulaguntzaren xede den jarduera bete dela egiaztatu ondoren ordainduko dira dirulaguntzak. Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztu beharko dira, horretarako egokitutako berariazko izapidea dela medio.

Ordainketa egiteko, II. eranskineko formularioa erantsi beharko da, behar bezala beteta, eta bertan azaltzen diren agiriak aurkeztu.

Justifikatu beharreko aurrerakinak egiteko aukera ematen da, foru araudian ezarritakoarekin bat etorri; horrela, erakunde onuradunek ordainketa bi fasetan justifikatu ahalko dute. Kasu honetan, lehenengo fase batean dirulaguntzak estaltzen ez duen jardunaren kostuaren zatia justifikatuko dute, eta Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza justifikatu beharreko aurrerakin kontzeptupean ordainduko du. Erakunde onuradunak gainerakoaren ordainketaren ziurtagiria aurkeztu beharko du hilabete bateko epean, dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzen duenetik zenbatuta.

10. JUSTIFIKAZIO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA.

Dirulaguntza ematen duen organoak, behar bezala justifikatutako kasuetan, ordainketa justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan adierazitako baldintzetan, betiere horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

11. OINARRIAK EZ BETETZEA ETA DIRULAGUNTZA ITZULTZEA.

Oinarriak betetzen ez badira, esleitu edo ordaindu den dirua edo ordaintzeko dagoena eskuratzeko eskubidea galdu dela adieraziko da ebazpen baten bidez. Ebazpen berean adieraziko da ordura arte jasotakoa eta berandutze interesak itzuli beharko direla. Gainera bidezko diren ekintzak egin ahal izango dira. Diru kopuru horiek sarrera publikoak izango dira legezko ondorioetarako.

Ondoko kasu hauetan oinarriak ez dira betetzen:

- a) Helburuak frogatu beharra ez betetzea.
- b) Dirulaguntza eskuratzeko eskatutako baldintzak bete gabe.
- c) Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.
- d) Onuradunak ez betetzea dirulaguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.
- e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.
- f) Xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

12. BABESLETZA.

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, biltzarretan, mintegietan, zabalkunde hitzaldietan, liburuxketan edo bestelako zabalkunde edo publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak emandako dirulaguntzaren berariazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ere argitalpen, biltzar, mintegi, zabalkunde hitzaldi, liburuxka edo bestelako zabalkunde edo publizitate modu guzti horietan.

13. ALDAKETAK.

Dirulaguntza emateko eta balioesteko kontuan hartutako 7. oinarriko inguruabarretako bat aldatzen bada, hura emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Deialdi honetan emandakoen ondoren edozein toki erakundek edo erakunde pribatuk laguntza edo dirulaguntzak lortuz gero, eta horren ondorioz diruz lagundutako kopuruak jardueraren kostua gainditzen badu, orduan baliteke emakida ebazpena aldatzea eta jasotako zenbatekoak, guztira edo partzialki, itzuli behar izatea, dirulaguntza ordaindu zen unetik kasuan kasuko atzerapen interesak barne.

14. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Hauexek dira toki erakunde onuradunaren betebeharrak: Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Epaitegiak eta beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematea; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 13. artikuluan ezarritako betebeharrak.

Toki erakunde onuraduna behartuta dago dirulaguntza eman dion organoari jakinaraztera ea helburu bererako dirulaguntzarik eta/edo laguntzarik eskatu dion beste administrazio edo erakunde publikoren bati, izan nazioko izan nazioarteko, edo beste entitate edo erakunde pribaturen bati, eta ea eman dioten.

15. ARAUDI OSAGARRIA.

Oinarri hauetan ezarrita ez dagoena Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta aplikatzekoa den gainerako arauak arautuko dute, batez ere arlo hauetakoek: hirigintza, ingurumena, toki erakundeetako ondarea eta sektore publikoko kontratuak.

I. ERANSKINA Dirulaguntza eskaera

Web formularioan honako datu hauek beteko dira:

- Erakunde eskatzailearen datuak.
- Harremanetarako pertsonaren datuak.
- Eskatutako ekintzaren datuak.
- Erakundearen legezko ordezkariaren datuak eta sinadura (eskatzailea udala bada, alkateak sinatu behar du; kontzejua bada, errejidore-lehendakariak).

Gainera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

Eskatutako ekintza egitea onartzeko osoko bilkurak, administrazio batzarrak edo auzokoen batzarrak hartutako erabakiaren egiaztatzea eta aurrekontuan diru erabilgarri dagoelako egiaztatzea.

Beste erakunde batzuei xede berarekin dirulaguntza eskatu zaien edo ez eta, baiezkoan, eskuratu den edo ez agerrarazten duen ziurtagiria. Erakundea eta zenbatekoa zehaztu beharko dira.

Orube edo eraikinen bat okupatu edo erabili behar izanez gero, hura udal plangintzako araudiarekin bat datorrela eta higiezina edo orubea baliagarri dagoela egiaztatzen duen agiria, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko lehendakariak ontzat emandakoa.

Aurkeztutako dokumentazioa eta jatorrizkoa bat datozela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, idazkariak edo fede emaileak sinatuta.

Azalpen memoria.

Proiektuaren deskripzioa, egungo egoerari buruzko memoria eta zer egiteko asmoa dagoen adierazten duen proposamena. Ekintza justifikatzeko kalkuluak.

Lanen programa, kronograma, burutzapen epealdia, aurreikusten diren hasiera eguna eta amaiera eguna.

Aurreikusitako inbertsioaren energia aurrezpenaren eta eraginkortasunaren justifikazioa.

Energia produkzioa instalazioak eskatu dituen toki erakundearen kontsumo elektrikoa adieraztea faktura bidez.

Toki erakundeko biztanle kopurua, sexuaren arabera bereizita, eta datuaren iturria.

Aurrekontua.

Aurrekontua, partidaka xehatuta eta banakatuta.

Finantzaketa plana.

Aurrekontuko baliabide erabilgarriak.

Eskatutako beste dirulaguntza batzuk (erakundea, zenbatekoa).

Kontratu txikietan, esleipenak oinarritzat hartutako eskaintza ekonomikoak. Eskabidean aurkezten ez badira, froga-agirietan aurkeztu beharko dira.

II. Eranskina. Ordainketa eskatzeko eredia ■ Anexo II. Modelo para solicitar el pago

Energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza ORDAINKETA-ESKAERA
SOLICITUD DE PAGO de ayudas para el impulso de acciones de sostenibilidad energética

Eskatzailea ■ Solicitante

Entitate onuraduna ■ Entidad beneficiaria	IKZ ■ NIF
<input type="text"/>	<input type="text"/>
Proiektuaren izenburua ■ Título de la actuación	Deialdiaren urtea ■ Año de la convocatoria
<input type="text"/>	<input type="text"/>

Egitasmoaren arduraduna kontakturako (Egitasmoaren zehaztapenak argitzeko harremana)

Persona de contacto encargada del proyecto (Contacto para aclarar detalles de la ejecución)

Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico	Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Entitatearen ordezkari legala (Alkate edo presidentea)

Representante legal de la entidad (Alcalde/sa o Presidente/a)

Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Dirulaguntza ordaintzea eskatzen dut, eta oinarriek eskatzen dituzten dokumentuak eranstu ditut, ondoko zerrendan adierazten den moduan

Solicito el pago de la subvención, y adjunto la documentación exigida por las bases según el siguiente listado

Data ■ Fecha	Ordezkarri legalaren sinadura eta erakundearen zigilua ■ Firma del representante legal y sello de la entidad
<input type="text"/>	<input type="text"/>

Agirien zerrenda/Listado de documentos

<input type="checkbox"/>	Fede emaileak edo idazkariak egindako ziurtagiria, emandako diru laguntzaren helburua eta xedea bete direla ziurtatzen duena; horrez gainera, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru laguntza edo sarrerarik egon den zehaztuko dugu, kopurua eta jatorria aipatuz	Certificación expedida por el secretario o secretaria o fiel de fechos, en el que conste el cumplimiento del objetivo y finalidad de la subvención concedida y se detalle si existen otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia
<input type="checkbox"/>	Fede emaileak edo idazkariak egindako ziurtagiria, diruz lagundutako ekipamendu edo instalazioa gutxienez 5 urtez mantenduko dela bermatzeko moduari buruzkoa, horrelako jarduerak direnean	Certificación expedida por el secretario o secretaria o fiel de fechos acerca del modo en que se garantiza el mantenimiento mínimo de 5 años de la instalación o equipamiento subvencionado, cuando se trate de ese tipo de actuaciones
<input type="checkbox"/>	Mantentze kontratua, sinatu bada; instalazio eta ekimendu jardueretarako nahitaezkoa da	Contrato de mantenimiento, en el caso de que se haya suscrito, siendo obligatorio para las actuaciones de instalaciones y equipamientos
<input type="checkbox"/>	Jarduketaren justifikazio memoria, diru laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena. 4.000 eurotik gorako diru laguntzetan, atal hauek sartu beharko dira: <ul style="list-style-type: none"> • Egindako ekintzen deskripzioa. Eskuratutako ibilgailu elektrikoaren edo instalatutako ekipamenduen marka eta modeloa • Jarduerak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: hartzekodunaren eta agiria-identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala badagokio, ordainketa eguna. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira • Instalatutako ekipamendu guztiak identifikatuko dituen plano edo krokisa. 25.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, obra amaierako planoak • Ibilgailu, ekipamendu edo instalazioaren argazkiak • Instalazioaren eguna. Denborazko garapena eta gorabeherak • Lortutako energia aurrezpenaren eta inbertsioaren efizientziaren justifikazioa 	Memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. En el caso de subvenciones de más de 4.000 euros, deberá contener los siguientes apartados: <ul style="list-style-type: none"> • Descripción de las acciones ejecutadas. Marca y modelo de los equipos instalados o vehículos eléctricos adquiridos • Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas • Plano o croquis con identificación de todos los equipos instalados. Para subvenciones de cuantía superior a 25.000 euros, plano de fin de obra • Fotografías de la instalación, equipo o vehículo • Fecha de instalación. Desarrollo temporal e incidencias • Justificación del ahorro energético logrado y de la eficiencia de la inversión
<input type="checkbox"/>	Obraren azken ziurtagiria, enpresa instalatzaileak emana (4.000 eurotik gorako diru laguntzetarako bakarrik); edo, 1 eta 6. motetako jarduketan kasuan, egindako dokumentuen kopia	Certificación final de la obra, emitida por la empresa instaladora (sólo para subvenciones de más de 4.000 euros); o bien, en el caso de actuaciones de los tipos 1 y 6, copia de los documentos producidos
<input type="checkbox"/>	Organo eskudunak kontratua esleitzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria	Certificado del acuerdo de adjudicación del contrato adoptado por el órgano competente
<input type="checkbox"/>	Kontratu txikietan, esleipenak oinarritzat hartutako eskaintza ekonomikoak (2 gutxienez), baldin eskaera egiteko ukan aurkeztu ez baziren	Ofertas económicas en las que se basa la adjudicación en el caso de los contratos menores (mínimo 2), si no las aportó en el momento de la solicitud
<input type="checkbox"/>	Jardueran egindako gastu guztien faktura xehea	Factura detallada de la totalidad de los gastos efectuados en el desarrollo de la actividad
<input type="checkbox"/>	Ordainagiria. Jarduketaren kostu osoa hartu ahal du barruan, edo diru laguntzak estaltzen ez duen zatia baino ez. Kasu horretan, erakunde onuradunak diru laguntzari dagokion zatiaren ordainagiria hilaibeteko epean aurkeztuko du, hura jasotzen duenetik zenbatuta. Hauek onartuko dira ordainagiri gisa: <ul style="list-style-type: none"> • Bankuko ziurtagiria, non, gutxienez, agertuko diren zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna • Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak • Dagokion udalaren kontu hartzailetza organoaren ziurtagiria • Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere 	Justificante de pago. Podrá comprender el coste total de la actuación o bien únicamente la parte no cubierta por la subvención. En ese caso, la entidad beneficiaria aportará el justificante del pago de la parte correspondiente a la subvención en el plazo de un mes desde que la reciba. Como documentos justificativos del pago se admitirán los siguientes: <ul style="list-style-type: none"> • Certificado bancario en el que se especifique como mínimo el importe, la fecha y a la entidad beneficiaria del pago o transferencia • Extractos bancarios electrónicos recibidos por e-mail u órdenes de transferencias telemáticas • Certificado del órgano de intervención del Ayuntamiento correspondiente • En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos
<input type="checkbox"/>	Aurkeztutako dokumentazioa eta jatorrizkoa bat datozela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, idazkariak edo fede emaileak sinatuta	Declaración responsable, firmada por la Secretaria o Secretario o Fiel de Fechos, de la coincidencia de la documentación presentada con el original